

## LETREN FAKULTATEKO ARAUTEGIA: TALDEA/HIZKUNTZA ALDATZEA

UPV/EHUko Graduko Ikasketen Gestiorako Arautegiak (<https://www.ehu.eus/eu/web/graduak/araudia/graduak%20ikasketen-gestiorako-arautegia/home>) honako hau dio 30. artikuluan, ikasleen banaketa dela-eta nahitaezko irakasgaietako taldeetan:

1. Matrikulatutako ikasleak nahitaezko irakasgaietako taldeetan banatu ahal izango dira hurrenkera alfabetikoaren arabera, ausaz edo ikaslearen nahiari jarraituz, matrikula epea ireki aurretik ikastegiko batzarrak onartutakoarekin bat.
2. Banaketa ikaslearen nahiaren arabera egitea erabakiz gero, ikasleek matrikula egitean aukeratu beharko dute taldea, une horretan dituzten aukeren artean. Aukera horiek matrikula egiteko eskariak ordenatu ondoren ikasleari egokitu zaizkion egun eta orduaren arabera izango dira.
3. Maila eta hizkuntza batean matrikulatu ondoren, ikasleek taldez aldatzeko eskatu ahal izango dute irakasgai solteetan, hizkuntzagatik. Eskabideok ikastegiko zuzendariak edo dekanok ebatziko ditu, eskura diren baliabideak oinarri hartuta.

Arautegiko 50. artikulua, berriz, hau dio:

4. Matrikulaturiko ikasleek talde jakin batean sartzeko eskaria egin ahal izango dute, ikastegi bakoitzak horretarako zehaztutako epean. Eskarien kopurua taldeko plazen kopurua baino handiagoa bada, ikasleak irizpide objektiboen arabera banatuko dira taldeetan. Irizpideok argitara emango dira taldez aldatzeko eskariak egiteko epea hasi baino lehen. Edozelan ere, lehentasuna izango dute 5. eta 6. deialdietako ikasleek.

Bat etorrira aipatutako arautegiarekin eta unibertsitateko ikasleei buruz indarrean dauden gainerako arauekin, Letren Fakultateko Batzarrak hau onartu zuen 2024ko maiatzaren 22ko bileran:

- Ikasleak nahitaezko irakasgaietako taldeetara esleitu ahal izango dira Letren Fakultateko Ikastegiko Batzarrak onartutako irizpideen arabera (beherago aipatzen dira).

Hori dela eta, **ikasleek matrikula egiterakoan aukeratutako taldeak ez dira izango behin betikoak lauhilekoetako bakoitza hasi arte**. Une horretara arte, ikasleak ausaz banatu ahal izango dira taldeetan, ikastegiaren antolaketa premien arabera.

- Dena den, matrikula egin ondoren talde edo hizkuntza jakin batean,

aldatzea eskatu ahal izango da. Eskarien kopurua taldeko plazen kopurua baino handiagoa bada, ikasleak irizpide objektiboen arabera banatuko dira taldeetan. Irizpideok argitara emango dira taldez aldatzeko eskariak egiteko epea hasi baino lehen.

### **TALDEZ ALDATZEKO IRIZPIDEAK:**

- Maila bereko beste irakasgai baten ordutegiarekin talka egitea.
- Irakasgai baten matrikula **5. edo 6.** deialdikoa izatea.
- **Bateragarri egitea** lan ordutegiarekin (lan kontratua aurkeztuta), senideen zaintza eta arretarekin (aldundiak edo beste erakunde eskudun batek emandako ziurtagiria aurkeztuta), goi mailako beste ikasketa ofizial batzuekin, eliteko kirol jarduerekin edo bestelako jarduerekin (kargu politikoak, sindikalak, ikasleen ordezkari izatea). Aipatutako kasu guztietan **egiaztagiria** aurkeztu beharko da.
- **Taldez aldatzea hizkuntzagatik.** Eskarien % 5 baino ez dira onartuko, jatorrizko taldeko ikasle kopurua oinarri hartuta, betiere helburuko taldea ez bada banatu behar ikasleen gehieneko kopurua gainditzeagatik kasuan kasuko irakaskuntza moduan. Irizpide hauei jarraituko zaie eskariak aukeratzeko:
  - 1) Kontuan hartuko dira hizkuntzaz aldatu nahi den irakasgaiaren gutxienez hirugarren aldiz matrikulatuta dauden ikasleen eskariak.
  - 2) Kontuan hartutako dira irakasgaiaren bigarren aldiz matrikulatutako ikasleen eskariak.
  - 3) Kontuan hartuko da eskatzaileen espedientea.

Lehenengo matrikulako eskariak onartuko dira bakar-bakarrik **ingeleseko talde batera aldatzea** eskatzen denean.

Eskariak kontuan hartuko dira baldin eta aipatutako kasuetakoren batean sartzen badira.

Eskaria izapidetzeko, eskatutako dokumentazioa ere aurkeztu beharko da eskariak aurkezteko epearen barruan. Eskatutako dokumentazioa aurkeztu ezean, eskaria ezetsi egingo da.

## ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA

Taldeak ahalik eta azkarren itxi behar direnez behin betiko, eskaria eta kasuan kasuko egiaztagiria aurkeztu beharko dira izapide akademikoetarako egutegian adierazitako epearen barruan (egutegi hori ikastegiaren webgunean argitaratuko da). **IRAILAREN HASIERAN EPE BAKARRA** egongo da, **bai lehen lauhilekoko irakasgaietarako bai bigarren lauhilekoko irakasgaietarako**, eta Letren Fakultatearen webgunean argitaratuko da.

**Bigarren lauhilekoko** irakasgaien kasuan, eta **salbuespen moduan**, aldaketa eskatzeko arrazoia eskariak aurkezteko ohiko epea amaitu ondoren gertatzen bada, ikasleak **bigarren lauhilekoa hasi aurreko asteen aurkeztu ahal izango du eskaria**.

Eskariak webgunean argitaratutako **inprimakiaren** bidez aurkeztuko dira.

BAZTERTU EGINGO DIRA EPEZ KANPO AURKEZTUTAKO ESKARIAK EDO BEHARREZKO EGIAZTAGIRIEKIN BATERA AURKEZTEN EZ DIRENAK.